

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Itziar Martínez Iregui
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Aitor Urrutia Oyanguren
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko ekainaren 21ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Petralanda jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiuno de junio de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Petralanda.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2012/03/15 eta 2012/05/17

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko ekainaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondorengo erabakien gaineko berri zehatza eman da:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B12/0469

DATA: 2012/06/01

GAIA: -Kreditu aldaketa.transferentzia.zkia: 9

ESPEDIENTEA: 2012KKRT0004

INTERESDUNA:

Gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, hain zuzen,9 zenbakiarekin identifikatua eta Udal honen aurtengo aurrekontuari eragiten diona.

Idazkari-Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola ikusi dugu eta, zehazkiago, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikuluen 3 eta 4. apartatuetan ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT"

Lehenik.- *Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:*

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gutxipena</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
1	<i>Pertsonalaren gastuak</i>	1.532.121,11	14.297,60	1.517.823,51
2	<i>Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea</i>	2.540.938,83	10.777,00	2.530.161,83
3	<i>Gastu finantzarioak</i>	50.506,00		50.506,00
4	<i>Transferentzia arruntak</i>	541.403,16		541.403,16
6	<i>Inbertsio errealak</i>	770.872,68		770.872,68
7	<i>Kapital transferentziak</i>	161.554,17		161.554,17
8	<i>Aktibo finantzarioak</i>	436,00		436,00
9	<i>Pasibo finantzarioak</i>	240.070,00		240.070,00
GUZTIRA ...		5.837.901,95	24.374,60	5.812.827,35

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gehikuntza</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
1	<i>Pertsonalaren gastuak</i>	1.517.823,51		1.517.823,51
2	<i>Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea</i>	2.530.161,83	14.077,00	2.544.238,83
3	<i>Gastu finantzarioak</i>	50.506,00		50.506,00
4	<i>Transferentzia arruntak</i>	541.403,16	580,00	541.983,16
6	<i>Inbertsio errealak</i>	770.872,68	10.417,60	781.290,28
7	<i>Kapital transferentziak</i>	161.554,17		161.554,17
8	<i>Aktibo finantzarioak</i>	436,00		436,00
9	<i>Pasibo finantzarioak</i>	240.070,00		240.070,00
GUZTIRA ...		5.812.827,35	25.074,60	5.837.901,95

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailtza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udaltzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

Eskoriatza, 2012ko ekainaren 1ean.

ALKATEAK

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B12/00504

DATA: 2012/06/13

GAIA: KREDITU HABILITAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA

ESPEDIENTEA: 2012ko aurrekontuari egindako 10. kreditu aldaketa

INTERESDUNA:

Idazkari-kontuhartzaileak 2012ko aurrekontuari egindako 10. kreditu aldaketaren onarpen espedientea idatzi du (Kreditu Habilitazio motakoa).

Espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta egokiak iritzita, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.- Kreditu-Habilitazio espedientea onartzea (2012ko aurrekontuari egindako 10. kreditu aldaketa), sarrera finalisten diru-bilketaren ondorioz sortutakoa. Guztira, 33.381,39 €.

Eskoriatzan, 2012ko ekainaren 13an.

ALKATEA,

3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

1. EAetik kanpoko espetxetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren eskoriatzarrei garraiorako diru laguntza indibidualak emateko oinarriak hasiera batean onartzea.
2. Herriko jai eguna 2013rako proposatzea.

4.- EAetik kanpoko espetxetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren eskoriatzarrei garraiorako diru laguntza indibidualak emateko oinarriak hasiera batean onartzea.

Gizarte Ongizateko Batzorde Informatiboak egindako proposamena ikusita, Merino jaunak eta Cantero jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA: EAetik kanpoko espetxetan dauden presoen senideei eta EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu bezala joan behar diren eskoriatzarrei garraiorako diru laguntza indibidualak emateko oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

HIRUGARRENA: Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

LAUGARRENA: OINARRI horiek onartu ondoren, bertan araututako prozedura gauzatu ahal izateko beharrezko erabakiak hartzeko ahalmena ematea Alkate jaunari.

5.- HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZUA (0-3 URTE, LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA) KUDEATZEKO KONTRATUA. INDARREAN DAGOEN KONTRATUA BERTAN BEHERA LAGATZEA

ALDE BIEK ADOS JARRITA, ETA ZERBITZUA ESLEITZEKO PROZEDURA DEITZEKO ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN AGIRIA ONARTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA.

2008ko azaroaren 26an egindako Udalbatzarraren erabakiz ARIZMENDI KOOP. E. enpresari esleitu zitzaion Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua.

Baldintza administratiboan agiriaren arabera, kontratuaren hasierako iraupena 2009ko azaroaren 30era artekoa zen, luzatu zitekeena alde biek berariaz ados jarriz gero; hala ere, iraupen osoa, luzapenak barne, ezin zitekeen lau urtetik gorakoa izan.

Horretarako hartutako erabakien arabera, kontratuak hainbat luzapen izan ditu, eta azkenaren indarraldia datorren azaroaren 30ean amaitzen da.

Datorren abuztuaren 31n kontratua deuseztatzea eskatu du enpresa esleipendunak.

Kontuan izanik ikasturtea irailaren 1ean hasten dela, zerbitzuaren interesentzako egokiagoa ikusten da kontratuaren indarraldia ikasturtearen hasierakoarekin bat etortzea.

Halaber, zerbitzua prozedura irekiaz berriz emateko esleipena arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboak eta baldintza teknikoak idatzi dira.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren berri izanda bozketa egin da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2008ko azaroaren 26an Udalbatzarrak erabakitakoaren arabera ARIZMENDI KOOP. E. enpresari esleitutako Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua indargabetzea 2012ko abuztuaren 31n, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 262. artikuluari buruz 206.c) artikuluan aurreikusitako arrazoiaren babesean.

Bigarrena.- Haur Eskolako (0-3 urte) Udal Zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko prozedura irekia deitzea. Zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren arabera egin beharko da kudeaketa.

Hirugarrena.- 4.620,22 euroko gastua baimentzea 0405.227.421.00.17 partidaren kontura, 2012ko irailaren 1a 2012ko abenduaren 31 eperako lizitazio aurrekontuari dagokiona.

Laugarrena.- Zerbitzu publikoaren tarifak onartzea. Tarifa horiek baimendutako prezio izaera izango dute.

6.- HERRIKO JAI EGUNA 2013RAKO PROPOSATZEA.

Aho batez erabaki da 2013rako HERRIKO JAI eguna ekainaren 29an izateko proposatzea.

7.- EZKER ANITZA-IUK AURKEZTUTAKO MOZIOA IRAKASKUNTZAREN KALITATEARI BURUZ.

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

ESKORIATZAKO EZKERRA UDAL TALDEAREN MOZIOA, IRAKASKUNTZAREN KALITATEARI BURUZKOA.

Eskoriatzako Ezkerrakoak (EAN-IU) kezkatu gaude José Ignacio Wert hezkuntza-ministroak hezkuntza arloan ezarri nahi dituen murrizketa-neurrien aurrean.

Izan ere, neurri horiek zera eragingo baitute:

- Gelako ikasleria % 20 igotzea.

- Irakasleriari ordu lektibo gehiago ezartzea eta lehenengo 10 egunetan bajak ez estaltzea.
- Etenda uztea Batxilergoaren hiru ereduetatik gutxienez bi eskaintza derrigortasuna.

Esaten digutenez neurri hauek derrigor bete beharrekoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen gaintetik igaro eta gero. Gure iritziz neurri hauek Eskola Publikoari zuzenean eragingo diete eta hezkuntza kalitatearen aurkakoak dira, gisa horretan argi geratzen delarik hezkuntzaren garrantziaren inguruan entzuten diren diskurtsoak. Ikasleriak, familiak eta oro har gizarteak jasango ditu neurri hauen ondorioak. Hots, zerbitzu publikoaren kontra doaz, alde batera utzita, jakina, aukera-berdintasun eta zuzentasun printzipioak. Egoera honen aurrean Eskoriatzako Ezkerrak (EAN-IU) Udaltzari proposatzen dio har ditzan ondoko

AKORDIOAK:

- 1.- Eskoriatzako udalak erabat errefusatu ditu Hezkuntza Ministroak ezarri asmo dituen murrizketak, besteak beste, Eskola Publikoaren kalitatea zuzenean erasotzen duelako, horrek zuzentasunaren haustura, aukera-berdintasuna kendu eta atzera itzultzea suposatzen dutelako.
- 2.- Eskoriatzako udalak euskal hezkuntzaren administrazioa eskatzen dio murrizketa horiek galaraztearren eman beharreko urratsak eman ditzan.
- 3.- Eskoriatzako udalak gonbita egiten du hezkuntza esparruko mobilizazioetan esku hartzeko.
- 4.- Erabaki hauen berri ematea Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioari, baita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza kontseilariari eta BAIKARA elkarteari ere (Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa).

Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udaltzarkideek alde bozkatuta, Udaltzarrak mozioa onartu du.

8.- EKAINAREN 28A LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA, EZKER ANITZA-IUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

MOZIOA: EKAINAK 28, LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Indarrean dauden legeen babesean, Ezker Anitza-Izquierda Unida udal taldeak, ekainaren 28a LGTBI harrotasunaren nazioarteko eguna dela-eta, ondorengo mozioa aurkezten du Udaltzarrean eztabaidatzeko:

ARRAZOIEN AZALPENA

1968ko ekainaren 28an hainbat matxinada izan ziren Stonewallen (AEB) LGTB pertsonen herrialde horretan pairatzen zuten kriminalizazioa salatzeke.

Ordutik, egun hori oraindik pankartetan jasotzen diren, eta erakundeek politiketan bihurtu ez dituzten, errebindikazioekin ospatzen da. Horrela, gizarte erakundeek, egun honetan urtero egiten duten bezala, "LGTB harrotasun eguna" deiturikoa ospatzen dute, eta bertan biltzen dituzte beraien indarrak kasu askotan erakunde publikoek jaramonik egiten ez dieten aldarrikapenen inguruan. "Desberdintzat" jotako sexu adierazpenenganako fobiak, desagertu beharrean, oraindik ere bere horretan diraute ikasgeletan, etxeetan, aisialdi eta lan zentroetan, eta baita administrazio eta zerbitzu publikoetan ere. Are gehiago krisi ekonomiko garaletan, pertsona guztien eskubideak, eta bereziki, gizartearen laidoztatuenean, kolokan jartzen direnean

uneoro. Berriz ere, ekainaren 28 honetan, beharrezkoa da berariaz babesa ematea LGTBI jendearen eskaerei eta beharrei.

Beharrezkoa da gizarte borrokan dabilzan gizarte aktore guztiei esker ona adieraztea, beraiek izan baitira orain LGTB pertsonen zenbait eskubide onartuta izatearen arduradun nagusiak, eta baita pertsona horien berdintasunaren eta benetako askatasunaren aldeko borroka kolektiboan konpromisoa izan nahi duten udal eta autonomia erkidego mailako ekimenak izatearenak ere.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari buruz Kode Zibila aldatu bada ere, edo "genero identitate legea" deiturikoaren bezalako legeak onartu badira ere, oraindik bide handia gelditzen da egiteko, eta horrela erakusten dute mugimendu sozialek kalean egiten dituzten borroken bidez. Horregatik guztiorregatik, ondorengo erabakiak hartzea proposatzen zaizkio Udalbatzarrari:

ERABAKIAK

- 1• Homofobiaren, lesbofobiaren, bifobiaren eta transfobiaren aurkako berariazko salaketa egitea, eta gizarte gaitz hori errotik kentzeko martxan jartzeko konpromiso zehatza adieraztea.
- 2• Nortasun transexual eta intersexualak gaixotsun bezala ez hartzeko eskatzea gobernuari, pertsona horien sexu eta osasun eskubideak kaltetu gabe.
- 3• 1953ko Konkordatoa eta Batikanoarekin 1979an sinatutako hitzarmenak indarrrik gabe uztearen eta erlijioa ikasgaia eskoletatik kanpo uztearen alde egitea.
- 4• Murrizketa sozialen aurkako konpromisoa adieraztea, bereziki, VIHari aurrea hartzeko eta tramamenturako murrizketen aurka, eta batez ere, migranteei dagokionez. Ondorioz, horrek osasun publikoa benetan defenditzera garamatza eta baita osasun publikoaren unibertsalizazioaren alde egitera ere.
 - Hezkuntza publikoa, laikoa, kalitatezkoa eta dibertsitatea kontuan izango duena defenditzea, gutxieneko baldintza moduan, demokrazia eta tolerantzia baloreak nagusi izango diren hezkuntza espazioa sortzeko.
 - Eskuratutako eskumenen arabera, lanaren behin-behinekotasunaren aurkako –bereziki, gazteenei eragiten dienaren aurkako– borrokan lagundu. Lan prekarietateak (malgutasuna, kontratu ezak...) galerazi egiten du bereizkeriagatiko erasoak antzematea eta salatzea.
 - Legalki aurreikusitako bideak erabilia politika publikoen bidez aktiboki laguntzea familia aniztasunaren alde egiten; familia homoparentalek jasan dezaketen edozein bereizkeriaren, sinbolikoa zein materiala, aurka eginez. Horrek, berarekin dakar sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari buruz kode zibila aldatzeko Partido Popularraren gobernuak ezarritako konstituzio-kontrakotasun errekurtsioa berariaz salatzea.
 - LGTBI elkartegintza modu aktiboan bultzatzea, bereziki, gazteen artean, eta baita beraien eskaerei eta proposamenei benetan eta aktiboki erantzutea.

Mozio hau honako leku hauetara bidaliko da:

- Osasun, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Ministeriora
 - Gizarte Politika eta Berdintasun Sailari
 - Herriko eta autonomia erkidegoko LGTBI elkarteei
- Juan Luis Merino Sanabria
Ezker Anitza-IU

Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

Ondoren, Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea eskatu zuelako:

Nik alde bozkatuko dut, alde bozkatuko dut horren aldeko uste sendoa dudalako eta legebiltzarreko gehien-goak ere horrela uste duelako, eta gero azalduko dut hori. Alde bozkatuko dut argi eta garbi dagoelako hiritar guztiek eta homosexual, bisexual eta transexualek legearen aurrean berdinak izateko eskubidea dutela, eta, gainera, eztabaidaezina da hori. Eta, hain zuzen ere, eztabaidaezintasun horrengatik, lapurtutako hurrei buruz bere garaian PSOEek aurkeztu zuen mozioa zela-eta eman nuen argudio bera emango dut. Momentu horretan Jose Luisek oso gaizki hartu zuen eta galdetu zidan ea zertan ez nengoen ados. Ez zuen galdetu ni guztiarekin ados ote nengoen. Gertatzen dena da gai horri buruz orain dela gutxi Eusko Legebiltzarrak erakunde adierazpena egin duela, eta nik bat egiten dudala horrekin ia mozio honen bezalakoa delako, eta PP-k berak ere sinatu zuelako, nahiz eta zuk hor esaten duzun bezala, konstituzio-kontrakotasun errekurtsioa aurkeztu. Nik, hausnarketa modura bakarrik, gauza bat esan gura dut: erakunde adierazpenen bat baldin badago, ez dakit zer punturaino merezi duen mozioak aurkeztea. Ematen du ez dakit zein kausako txapeldun agertu gura dela, baina, niri nahikoa eztabaidaezina iruditzen zait erakunde adierazpenen bat dagoenean, eta atzerakoienek ere, hau da, PPkoek, sinatu dutenean Eusko Legebiltzarrean. Orduan, goragoko erakundeak kontuan hartu gabe mozioak aurkeztea bidezkoa da, baina, ez dakit zenbateraino egokia iruditzen zaidan. Eta gero, argudioen zatia eta xedapen zatia irakurtzen dituzu, eta xedapen zatian ematen du Ezker Batuaren programaren laburpena egiten dela, bakarrik errepublika aipatzea falta izan zaizue. Hau da, erakunde adierazpenarekin bat datozen 3 edo 4 puntu daude, eta gero, guztia pixka bat nahasia dago. Niretzat, mozio honetan, eta inpresio bera izan nuen atez atekoari eta parte hartzeari buruz aurkeztutako mozioan, argudio zatia eta xedapen zatia ez dira guztiz ondo lotzen. Orduan, ez dakit zein edo noizko konkordatuaren gaia alde batera utzita ez duelako gaiarekin zerikusirik, uste dut 43koa izatez 79ko hitzarmenak indargabetu zuela; eta hor lerratu zareten edo ez kontuan izan gabe, uste dut garrantzitsuagoa dela nire ustez mozioak duen arrazoa, hau da, hiritarrik ez baztertzea -kasu honetan, sexu kontuengatik-.

9.- GALDE-ESKEAK.

9.1.- Zenbat diru kostatu zaion Udalari herrian antolatutako hainbat ekitaldik.

Merino jaunak galdetu du zenbat diru kostatu zaizkion Udalari Mundumira, Ferixie, Errekan Gora eta abarren moduko ekitaldiek.

Honako eztabaida hau izan da:

Alkate jauna: aurrekontuan daude, nahiz eta aurreikuspena bakarrik izan.

Sr. Merino jauna: aurrekontuan egongo dira, baina, nik uste dut aurrekontuan ez direla sartzen brigadako langileen orduak, eszenarioak.... diru gehiago eskatzen duten gastu pila bat. Adibidez, jakin daiteke Mundumirako benetako gastua?

Alkate jauna: gura baduzu kalkulatuko dugu.

Merino jauna: Ferixari dagokionez, gauza bera.

Alkate jauna: Ferixarako uste dut diru laguntza bat ematen dela. Ez du kosturik guretzako.

Merino jauna: eta brigadako langileek ez dituzte orduak sartzen hortan laguntzeko.

Alkate jauna: bai, baina, brigadako kostua ez da aldatzen.

Merino jauna: jakina! Ez da aldatzen. Baina, hirugarren batentzako lanak egiten ari dira, kasu honetan, Arizmendirako. Ez dira ari lanean errepideko zuloak betetzen.

Alkate jauna: nik uste dut Eskoriatzako Udalak ez diola ukatu inori brigadako langileen laguntza.

Merino jauna: nik ez dut esaten laguntza ukatu behar denik edo ez. Nik esaten dut hori gastu bezala kontatu beharko litzatekeela.

Alkate jauna: baina, zer da proposatzen duzuna?

Merino jauna: benetako kostua jakitea. Diru laguntzaz gain, Ferixaren kasuan edo Mundumirarenean, benetako gastua, baita brigadako langileen kostua ere.

Madinabeitia jaunak uste du gehiago zehaztu beharko lukeela bere eskaria, bere ustez, beharbada ezinezkoa izan daitekeelako kontzeptu guztiak kalkulatzea. Kalkulatzea gura duen gastuko kontzeptuak zehaztea proposatu dio.

Merino jaunak berriz dio berak eskatzen duena oso sinplea dela, eta honakoa esan du: eskatzen dudana da Mundumira hartzea eta ikustea zenbat eman den eta zenbat ordu egin dituen lan horretan brigadak.

Urrutia jauna: nik galdera hori egin nuen Mundumirari buruz, eta Beñatek eranzun zidan 7.000 € inguru zirela. Nik uste dut Juan Luisek eskatzen duena informazioa dela, eta horren atzetik hausnarketa bat dagoela pertsonal gaietan dagoen politika guztiaren inguruan, eta zehazki, brigadaren osagarriak murrizteari buruzkoan. Zenbat kostatzen da hori? Niri ere informazio interesgarria iruditzen zait, batez ere, zenbait gai ei buruz hitz egiteko pertsonal batzordean.

Informazio hori eskatzeko arrazoieta z galdetu du Alkateak.

Merino jauna: nire gogoeta da. Agintaldiaren lehen urtea bete dugu, eta ferixa asko, Mundumira asko, jai asko eta errepede gutxi konponduta, enplegu plan gutxi...

Alkateak erantzun dio Enplegu Planari buruzko laguntzak Debagoieneko Mankomunitateak kudeatu behar dituela.

Merinok behin eta berriz dio bere ustez azken urtean kulturari gauza asko egin direla, baina, beste guztian gutxi, eta lehentasunak erabaki beharko liratekeela, eta horrekin ez duela esan nahi jairik ez dela egon behar.

Alkate jaunak galdetu dio Mundumirako edo Ferixako benetako kostuez gain beste zerbaiten kostua kalkulatzetik gura duen, esate baterako, pleno bat egitearena.

Merino eta Urrutia jaunak kexatu egin dira Alkateak egindako komentario horrengatik.

Urrutia jauna: nik ulertu dezaket Iñakik esaten duena, baina, Juan Luisek eskatzen duena ez da hain zehazta. Mundumirak zenbat kostatu duen jakin gura du, zenbateko laguntza eman zaion Ferixari... baina, ez alderatu kostu hori pleno bat egitearenekin. Pleno bat egitea Mundumirarekin alderatzen baldin baduzu, ba, beharbada, batzuk soberan gaude hemen.

Alkateak esaten du ez gaizki ulertzeko berak esandakoa; berak zer eskatzen den jakitea gura duela: Mundumiraren kostua kalkulatzea, Ferixarena... beste zerbaitena?

Merino jauna: eta Errekan Gorarena...

Erantzuten zaio azken hori oraindik ez dela egin, eta dagoen bakarra aurreikuspen bat dela.

Akizu jaunak uste du informazio hori bidezkoa izango zela aurrekontuan jasotakoa baino gehiago gastatu izan balitz, egindako gastua aurrekontuan jasotakoarekin bat baldin badator ez duela kalkulu horiek egiteko arrazoirik ikusten, kalkulu horiek nolabait eginda egongo zirelako aurrekontuak egiterakoan.

Urrutia jauna: aurrekontua ez badugu gainditu horrelakorik eskatzeko arrazoirik ez dagoela esatea, tira! Horrekin saihesten ari zara norbaitek kritika zaitzan, eta ez da hori. Adibidez, nik uste dut, gaur egungo egoera kontuan izanik, osoko bilkura batean edozeinek kritika dezakeela 1.000 euro gastatzen direla zerbaitetan. Edo, beharbada, egungo egoerarengatik eta jendearen "tristurarengatik" gehiago gastatu beharko litzatekeela pentsa daiteke. Aurrekontuak ez gainditzeak ez du esan nahi ezin denik kritika politikorik egin.

Alkateak erantzun du zein ekintza kalkulatu behar diren zehazteko non jarri behar den abiapuntua jakitea gura duela berak, abiapuntua "brigadak parte hartzen duen ekintzak" izan behar diren edo "kultur ekintzak".

Merino jaunak berriz ere dio berak eskatzen duena ekintza horien gastu erreala jakitea dela, eta ez dela ari esaten ez direnik egin behar.

Iregui andreak jakinarazi du beste ekintza bat ere egin dela, eta Udalak plaka bat emanda lagundu duela; hain zuzen ere, ekintza hori Jubilatuen Etxearen 25. urteurreneko ospakizuna izan da, eta brigadak, Tele-skok... ere parte hartu dute.

Merino jauna: ekintza horren kostua ere kalkulatu beharko zen. Jendea oso pozik dago kalea ez delako asfaltatzen, batez ere, autoak konpontzeko lantegiak daude pozik. Nire hitzekin adierazi nahi nuen hainbesteko jarduerarekin zenbait ekintza eta zenbait gastu lehenetsi beharko liratekeela, eta uste dut kale nagusia asfaltatzeko eskaria badagoela eta inork ez diola kasurik egiten. Gutxi gorabehera, 99.000 euroko kostua du eta erantzuna izaten da ez dagoela dirurik. Ondo, nahi dugunerako badago dirurik eta nahi ez dugunerako ez dago. Hori da egiten dudana kritika.

Eztabaidak antzeko arrazoiekin jarraitu du eta Alkateak amaitutzat jo du esanez eskatzen dena kalkulatu daitekeela eta kultura batzordera eraman daitekeen gogoeta dela.

9.2. Jasotako erantzunen aurrean esker ona.

Merino jaunak eskerrak eman dizkio Alkateari bere garaian egindako galderei idatziz erantzutearren.

9.3.- "Atez atekoari" buruz Bilduk aurkeztutako mozioa eztabaidatu zen bilkurara ez etorri izanaren arrazoiak adieraztea.

Merino jauna: aipatu gura dudana beste kontu bat da azkenengo osoko bilkuran eztabaidatu zen zerbait, neu bertan ez izan arren lan kontuengatik. Iritsi zaizkigun zurrumurruek diote IU ez zela bertan izan baietz ez bozkatu behar ez izateko. Ezker Anitza hemen da gaur, eta orduan ahal izan balu, baietz bozkatuko zukeen. Konbentzituta gaude gaur egungo sistemarik onena dela ahalik eta gehien birziklatzeko, eta horrela errausgailurik egin ez dadin. Eta konbentzituta gaude, eta, gutxienez, 2002tik daramagu gai honekin. Orduan, ba, arrazoi horrengatik ez ginela etorri esan duenari, ba, pixka bat, isilarazteko.

9.4.- Bertan behera lagatako eraikinak Intxaurtxuetan.

Urrutia jauna: Eskoriatzako sarreran, Intxaurtxuetan, egitura eginda besterik ez duten eraikinei buruz zer asmo dagoen jakin gurako nuke. Zeren eta, oker ez banago, aurreko agintaldian, eta guztiok alde bozkatuta, eraikitzaileari gutxienez fatxadak amaitzeko eskatzeko erabakia hartu zen. Eta han, ez fatxadarik, ez inolako mugimendurik; eta hura penagarri dago. Eraikin horiei buruz zer asmo dagoen jakin gurako nuke.

Alkate jauna: Ondo esan duzun bezala, hura penagarri dago, eta urtarrila aldera, urte hasieran, Promociones Eskoriatzako ordezkariekin bilera egin genuen eta fatxada ez ezik urbanizazioarena ere mahaigaineratu genuen, urbanizazioak ere ezin duelako jarraitu dagoen moduan, eta gaia mahai gainean jarri bezain pronto beraiek beraien arazo ekonomikoak atera zituzten. Esan zuten beraien egoera ekonomikoa ez dela oso ona, eta hainbat aukera aztertzen ari zirela urbanizazio obrak amaitzeko finantziazioa lortzeko. Alternatiba bat aztertzeke gelditu ziren eta ez dakigu egin ahal izango den edo ez. Gaia ez daukagu ahaztuta, sarrera hori egunero ikusten dugulako, eta horretan dihardugu. Aurreko agintaldian ikusi zenez, gaia ez da erraza...

9.5.- Autopistako neurri zuzentzaileak eta neurri konpentsatzaileak.

Urrutia jauna: garai batean, hemen "neurri konpentsatzaileak" esamoldea oso esamolde ezaguna zen, "totem" bat bezala zen. Autopista amaitu zen, administrazioak aldatu ziren eta, zer dakigu neurri konpentsatzaileei buruz? Hemen plan batzuk zeuden, bere garaian Aldundian aurkeztu zirenak, autopistaren inguruko auzoetarako, Intxaurtxuetarako, San Pedrorako, Santa Anarako, Apotzagarako, elizaeetarako. Esaten zen %10a izango zela kulturarako. Nik gogoratzen dut Aldundia beste kolore batekoa zenean asko hitz egiten zela eta modu ikaragarrian eskatzen zela; eta, orain, alabaina, hori guztiori isilik dago. Nik dakidala, nahiz eta batzorde guztietara etorri ez, gutxienez, paper guztiak irakurtzen ditut, eta ez dakigu ezer autopistari buruz, neurri konpentsatzaileei buruz, hau da, zer dago horri buruz? Nola dago gai hori?

Alkate jauna: uste dut, ziur asko, neurri konpentsatzaileen gainean zuk nik baino gehiago jakingo duzula, baina, uste dut neurri konpentsatzaileak jasotzen zituen dokumentu hau ez zuela onartu Bidegik. Baina, uste

dut nirekin bat etorriko zarela neurri konpentsatzaileak baino lehenago neurri zuzentzaileak egin behar direla esaterakoan, izan ere, orduan Bidegiko gerentea zenak autopista ireki zuen, baina, Eskoriatzako bazter asko hala-moduz utzi zituen. Urtebete daramagu Bidegirekin eta egungo Aldundiarekin lanean, egiteke gelditu ziren neurri zuzentzaileak egin daitezten gutxienez. Elkarrizketetan aurrera egin dugu, Maringo neurri zuzentzaileen proiektua eginda dago eta espero dugu hil honen amaierako beste auzoetako proiektuak ere eginda egotea. Uztailaren 4an bilera dugu Bidegirekin proiektu hori nola egin aztertzeko. Horregatik, neurri zuzentzaileak bide onetik doaz; konpentsatzaileei dagokionez, jakin badakigu gaur egun Bidegik 900 milioi euro-tako zorra duela, eta badakigu zergatik. Horregatik, uste dugu ez dela gauza handirik izango neurri konpentsatzaileentzako, baina, Eskoriatzako herriaren eskaria denez, eta horren jakitun gara, neurri zuzentzaileak amaitutakoan konpentsatzaileak eskatuko ditugu, baina, ez dakit, ba, egoerak neurri konpentsatzaile asko jasotzerik ahalbidetuko duen.

Madinabeitia jaunak jakinarazi du otsailean gaia aztertzeko bilera monografiko baterako deia egin zela.

Urrutia jauna: Beñat, autopistari buruz nik zuk baino gehiago jakiteak ez du zutaz ezer onik esaten. Berdin zati neurri zuzentzaileak izan hala konpentsatzaileak. Gai horri buruz, edo beste edozeini buruz, urtebete pasa ondoren, nik zuk baino gehiago baldin badakit, barkatuko didazu, baina ez du zure alde ezer onik esaten. Eta, hemen ez gara batereitsuak, eta ikusten dugu ondo babestuta zaudela bai etxetik eta bai kanpotik. Alkate batek zinegotzi bati esatea neurri konpentsatzaileei edo neurri zuzentzaileei buruz berak baino gehiago jakingo duela, zure aurka doa, gutxi esaten du zure alde. Eta ondo dago honelakoak esatea: urtebete pasa da, lanean jarraitzen dugu, aztertzen ari gara; baina, beste batzuei ez zaie urtebeteko eperik ematen. Eta diru bilketa arazoak ez dira Martin Garitano diputatu den garaikoak, diru bilketa arazoak lehenagokoak dira, eta diru bilketako urte txarrenak, oker ez banago, 2009an izan ziren. Eta hemen batzuk badakigu zer esaten zen eta zer eskatzen zen. Batzuk badakigu. Ez dakit zer nolako zorrak utzi dituela Bidegik... hor inbertsio batzuk daude eginda, bakoitza bere planarekin, eta ez naiz sartuko Larraitz Ugartek egiten duen demagogia horretan, behar beste denbora izango dugulako horretaz hitz egiteko. Non daude Santa Anari buruz ez dakit zer aparkalekuri buruz, auzo bakoitzari buruz egin ziren plan guzti haiek? Non daude? Esan da otsailean hitz egin zela luze eta zabal batzorde batean. Ondo, batzordeak ere baziren aldiro-aldiro aurreko agintaldian. Hemen, batzuek beraien poltsikoak bete dituztenean, ez dakigu ezer autopistari buruz. Eta trenaren gainean, badago zertaz hitz egin. Zeren eta dirudienez, trena ez da Eskoriatzatik pasatzen.

Alkate jauna: uste dut erantzun dizudala, eta ez da otsailean bilera egin zenik. Aldundikoak eta Bidegikoak askotan etorri dira hona, kaltetuekin egon gara bertatik bertara ikusten neurri zuzentzaile guztiak. Neurri zuzentzaileak lortzea ez da gutxi, lehenago Bidegin zeudenak ezetz esan zutelako, eta, orain, gaia berriz ere hartu eta horietako bakoitzari baieztako edo ezeztako erantzutea lortu dugulako. Eta uste dut ONBIDEko bazkideek Bidegik izandako jarrera aldaketaz informatu ahal izango dizutela. Gero, pare bat gauza zuzendu nahi dizkizut. Nik ez dut esan neurri zuzentzaileei buruz nik baino gehiago jakingo duzunik, esan dizut beharbada jakingo duzula. Beharbada, zuk gehiago jakingo duzu neurri konpentsatzaileei buruz, baina, neurri zuzentzaileak zeintzuk diren ondo dakit, eta horientzako proiektuak egiten ari dira. Eta gero, ez dut esan neurri konpentsatzaileak ez direla iritsiko diru bilketa jaitsi delako; esan dut Bidegik 900 milioi euroko zorra duela -eta zor hori handitzeko arriskuarekin-, bere garaian egin ziren planen aurreikuspenak ez direlako ari betetzen. Eragin handia izan du autopista kudeatzeko esleipena duen enpresak ordainketak egiteko duen moduan, eta gogoratzen dut, bere garaian esan nuelako, berreskuratzen ez diren inbertsioak ez direla inbertsio, gastuak direla. Uste dut bide onetik goazela. Ez da bide erraza milaka eskaera daudelako eta denbora asko luzatzen ari den proiektua delako. Ez dut ulertzen ere aurreko agintaldiko Bidegik autopista zabaltzea bazterrak utzi zituen moduan utzita eta gainera, neurri konpentsatzaileen gainean horiek zer diren galdetuz. Gero, kontuan izan behar da Aldundi berriak Bidegiren kudeaketa hartu duenerako eta egunean jarri, denbora behar izan duela. Bai, gaia luze doa, baina, badoa pixkanaka-pixkanaka.

Urrutia jauna (Merino eta Cantero jaunei zuzenduz): zuek bazenuten bilera horren eta esan berri duen beste gestioen berri?

Biek erantzun dute hortik zehar entzuten dena dakitela.

Urrutia jauna: hemen horrelako asko gertatzen da. Kaltetuekin egon ginen, ez dakit norekin egon ginen... baina, zinegotziekin oso gutxi egoten zarete. Eta ez du balio esaterik Alkatetzako ateak irekita daudela: Alkatetzako atea zabalik egongo da zinegotziak sartzeko, baina, baita Alkatea ateratzeko ere. Ez? Garai batean herriaren kontuak ziren, herriaren proiektuak, eta orain, badirudi gobernu taldearenak direla, denak tribu berekoak baitira. Hori ematen du, Juan Luisek esan baitu *hortik entzuten duena*, hori da tristea! Nik ere esan dezakedan gauza da gutxi dela dakidana. Eta dakidan apurra hortik zehar entzun dudalako da. Horregatik esan dizut lehen gai honetan edo beste batean nik zuk baino gehiago baldin badakit, zerbait ez doala batere ondo.

Alkate jauna: informazioa eman da, eta berriz esango dut, informazioa eskatzen baduzue, emango zaizue.

Madinabeitia jauna: nik dakidana, hirigintza batzordean jakin dut, eta jaso dudana informazioa nahikoa izan da. Informazioa badago eta eman da, ez esan informaziorik ez dagoenik ez zaretelako etortzen batzordera ezin duzuenen.

Urrutia jauna: informazioa egongo da, ez dut esaten ezetz. Baina, eman, ez da hainbeste ematen. Areago, paper pila bat irakurtzen denbora gehiegi pasatzeko ohitura txarra dut. Eta lehen, hirigintza batzordetik txostenak ere jasotzen genituen; eta denbora asko da txostenik jasotzen ez dugula. Baina, hori ez da larria, larria da kultura batzordeko txostenik ez dudala ikusi Udal honetan daramatzadan 5 urtetan. Eta uste dut horiek ere bidali beharko zirela deialdiarekin batera, batzordetara ez garenez beti etortzen ezin izaten dugulako, ez dugu informaziorik izaten, eta informazio hori jasoko bagenu, beharbada ez genuke horrelako gauzarik galdetu behar izango osoko bilkuran, eta galdetzekotan, beharbada beste modu batera galdetuko genuke.

Alkateak erantzun dio autopistarekin lotuta ez dagoela inolako txostenik, erabakirik ere ez dagoelako; oso gai zaila dela Eskoriatzako tartea ez delako erraza eta gaia asko luzatzen ari delako. Nabarmendu du oraindik gaia gestionatzen ari direla, zaila delako, eta zerbait dagoenean eramango dutela hirigintza batzordera "elizate eta azpiegitura azpibatzerdearen" bidez.

Madinabeitia jaunak Urrutia jaunari esan dio informaziorik ez zaiola ematen esateko ez jartzeko aitzaki beza ezin duela hirigintza batzordera joan, jo behar duen lekura joz gero, nahiz eta beste momentu batean izan, emango zaiola informazio hori.

Urrutia jaunak erantzun dio aitzaki handia gobernu taldearena dela, gobernu taldeari informazioa eskatzen dion bakoitzean erantzuna honakoa izaten dela "ez zara batzordera etorri".

Hitzarekin jarraituz, honako hau esan du: azken 5 urteetan udal honetan ez dakigu ezer AHTri buruz. Ez dakigu arazoak berberak diren edo ez. Uste dut azken 5 urteetan izan garela hirigintza batzordeetan eta beste batzorde pila batean ere; eta hala ere, ez dakigu ezer, ematen du trena ez dela Eskoriatzatik pasatzen. Eta AHTri buruz, zer informazio dago? Nola doa kontua? Ez dakigu ezer.

Madinabeitia jaunak erantzun dio galdera hori hirigintza batzordean egiteko, eta dagoen informazio guztia emango zaiola.

Urrutia jaunak: gaur bi gauzez konturatu naiz: lehenengoa, osoko bilkura eta Mundumira gauza bera direla; eta bigarrena, ezin dela galderarik egin osoko bilkuran aurrez batzorde informatzailean egin ez bada. Ondorio oso tristeak dira.

Madinabeitia jauna: uste dut kontua itxuragabetzen ari zarela eta interpretazio guztiz okerra egin duzula.

9.6.- "Aholku batzordea" sortzeko proposamena.

Merino jauna:

Aitorrek esandako gauza askorekin ia ados nago, baina, planteamendu positiboa egin behar dut. Planteatu behar dut gobernu taldearen eta oposizioaren artean hilerok bilduko litzatekeen aholku batzorde moduko bat sortzea, udalerrira gainditzen dituzten gaiak aztertzeko, esate baterako, azpiegiturak. Hilean behin bildu eta alkateak horrelako gaiak buruz informatzeko egutegi bat finkatzea proposatzen dut.

Alkateak adierazi du ados dagoela ideiarekin, baina, eskatzen du bileretara joateko konpromisoa egon dadila eta behar besteko denboraz jakinarazteko zer gai jorratu gura diren, horrela, berak gai horiek prestatzeko denbora izateko.

Eztabaidan planteatu da bilera horiek iritzi eta informazio trukaketa izatea. Alkateak konpromisoa hartu du posta elektronikoko bat bidaltzeko bozeramale guztiei lehen bilera egiteko eguna adosteko.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 20:10ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Itziar Martínez Iregui
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Aitor Urrutia Oyanguren
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko ekainaren 21ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Petralanda jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintiuno de junio de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Petralanda.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de la sesiones del día 15-03-2012 y del día 17-05-2012.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 15 de junio de 2012 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta expresa sobre las siguientes resoluciones:

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Nº: B12/0469

FECHA: 01/06/2012

ASUNTO: *Modificación de crédito: transferencia nº 9*

EXPEDIENTE: 2012KKRT0004

INTERESADO:

Examinado el Expediente de Modificación de Créditos nº 9, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este año de este Ayuntamiento.

Según el informe de la Secretaria-Interventora, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Haciendo uso de las competencias otorgadas en los apartados 3 y 4 del artículo 29 de la citada Norma Foral,

RESUELVO

Primero. *- Aprobado el expediente de modificación de créditos mediante transferencia de créditos entre las partidas presupuestarias de gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por capítulos:*

Gastos (bajas) que recogen los créditos transferidos

Capítulo	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
1	Gastos de Personal	1.532.121,11	14.297,60	1.517.823,51
2	Compra de bienes corrientes y servicios.	2.540.938,83	10.777,00	2.530.161,83
3	Gastos financieros	50.506,00		50.506,00
